



ASIER HILARIO

Euskal Herriko Unibertsitateko Dokto-rea geologian eta Euskal Kostaldeko Unescoren Geoparke Mundialaren zuzendari zientifikoa.

Doctor en Geología por la universidad del País Vasco y director científico del Geoparque Mundial de la Unesco de Costa Vasca.



Elkarrizketak udalaren web orrian eskuragarri
Las entrevistas disponibles en la web del ayuntamiento

www.eibar.eus

Geodibertsitatea: natura naturaren atzean

EDUKIA:

Lurralde baten geodibertsitatea bere arroak, mineralak eta fosilak baino askoz gehiago da. Lurraldearen balioa paisai-legatuaren bidez irakur dezakegun milioika urteko (Ma) kontakizun liluragarritik askoz harago doa. Geodibertsitateak gure historia, kultura eta ekosistemak neurri handi batean baldintzatzen ditu, eta diruarekin nekez kuantifika daitezkeen baliabideak eta zerbitzuak ematen dizkigu

Harriak, mineralak, fosilak, zoruak eta erliebearen formak naturaren parte dira, haritzak, orkideak, sugandilak edo otsoak diren bezalaxe. Ostera, nahiko kontzeptu berria da elementu geologikoen ondare-adiera. Gizarteak argi eta garbi dauka Ekaingo labar-pinturak edo Gasteizko katedrala gure ondare historiko eta kulturalaren parte direla; animalia eta landare espezie batzuk — bereziki ugatza edo igaraba, galtzeko arriskuan daudenak— gure ondare naturalaren parte direla. Bada, geologiako elementu batzuek balio berezia dute beren balio zientifiko, kultural, estetiko edo didaktikoagatik, hau da, geología-ondare dira, behar bezala zaindu eta kudeatu behar dugun baliabidea.

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://geoparkea.eus/es/>

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/geologia/eu_def/adjuantos/GEODIBERTSITATEA_web.pdf